

## Garaikoetxea Madrilera

*Deia*, 1983-07-15.

Ba da politikan, beste errazagoak izango diren artean, eginkizun latzik, eta horietako bat Madrilgo plazara gure herriaren eskubideak defendatzera joatea. Doanak ba daki tradizioz, eta berez ere, argi esandako hitzak kontrarioaren belarri motzetarako bidean ilunduko zaizkiola, Madrileko aire zaharra dela hau; hitz berak ez duela aire hartan eta hemengoan zentzu bera, eta dudamudatan hiztegi bila joango dena bere etxean nagusi sentitzen dena izango dela.

Zerbait egin du gure Lehendakariak hasieratik ongi: alde zurretik EFE bitartez Felipe Gonzalez-ek jakin nahi zituenak garaiz eta egi borobilez esan dizkio Karlos Garaikoetxeak.

Hala, biak daude bada oharteraziak.

Lehendakariak esandakoen artean hiru puntu ditut gogoko:

1. Gernikako Estatutuaren murriztea LOAPArekin hasi zen; hau UCD-PSOEek, eta Euskadiko Jaurlaritza eta indar politikoengandik gordeta, eta horien bizkar!, egina izan zen. Ez dago legez, ez gizabidez, laido hau xuritzetik. Uste genuen oso-osoa UCDren esku berri, Soila, zegoela Euskalerrinari egindako itsusikeria honen atzean, baina PSOEek bakarka erakutsi digunez gero, ez du eskuineko eskuaren beharrik zimarkunkerietarako, ezker nahikoa duela. Esan, bestela, PSOR, LRU, LODE eta beste zerekin eskribatu dituen.

Horiek denak geuk aukeratu ez genduen Konstituzio azpian, baina joko garbiz, gero gure naziotasuna bereziki ezagutu zuen eta geuk onartu genuen Autonomia zazpi giltzez itxi digute orain demokraten aginkeria bidez.

2. Estatutuaren interpretaziorako giltza nagusi horiek Madrilen galdu dituzte, eta Konstituzioa bera den giltzarriaren gainetik "ganzua" edo gako gaiztoz ari dira gure nortasunaren atea bortxatu nahiean. Baina, kasu!, gakoak ireki dezake atea serraila hautsiaz, eta honez gero edonor sartuko den gure kezka, eta honek gudan izango duen eraginaz, ez dadila inor eskandalizatu.

3. Ba da Euskadin, eta neu horien artean, PSOEn joko maltzur hau dena herriak emandako agintearen gainetik edo azpitik egindako joko beltzaren mende geratu ote garenaren susmoa.

Hau honela bada, herriak jakin behar luke menpe hau gehien nozitzen hasi denak babesik ba duen edo beste dignitate bateko bide hertsia edo satorbideak egiteko gorputzez, edo arimaz!, arintzen hasi behar duen.

Hiru puntu horiek zintzilik hemen utzi uzten ditut. Gauza bat ausartzen naiz Garaikoetxea jaunari esatera: Madril plaza zaila izan dela beti zezenetarako, gutxien esateko; gure herriak ba dakiela Lehendakaria nor den, eta konfidantza osoa duela egiteko behar duen guztia berekin duela; eta, batez ere, jakin beza, ez doala bakarrik, jendez eta izpirituz gehiengo den herria han duela gogo bizi berekin.